



g e h i t u

asociación de gays y lesbianas del país vasco
euskal herriko gay eta lesbianen elkarte

Donostia – San Sebastián, 2000ko azaroaren 8a

Nafarroako Parlamentuko Lehendakariari:

GEHITU Euskal Herriko Gay eta Lesbianen Elkarteak ohore eta atsegin handiz jakinarazten dio buru zaren erakundeari, ezen, gure Zuzendaritza Batzordeak GEHITU-REN ZILARREZKO SARIA 2000 zuen erakundeari ematea erabaki duela, gure elkarteak urtero sari hau ematen baitio lesbiana, gay eta transexualen eskubideak defenditu eta sustatzeagatik nabarmendutako pertsonari edota erakundeari.

Ganbara horretan ordezkaturik dauden talde politikoen egoera bidegabe eta marjinazaile bati amaiera emateko erakutsitako borondatea izan dugu kontuan erabaki honetan, bikoteei haurrak adoptatzeko eskubidea ematen dien Bikote Elkarte Egonkorren Legea onartu baitzenuten ekainean, bikoteak sexu bereko pertsonaz edota sexu biologiko desberdineko pertsonaz osaturik dauden ala ez aintzat hartu gabe. Beraz, gay eta lesbianen kolektiboek aspalditik aldarrikatzen genituen eskubide eta erreibindikazioak osorik onartzen dituzten lehenak, zuen foru erakunde horretako ganbara izan da estatu espainiar osoan. Eta horrek argi eta garbi erakusten du beste instantzia batzuetan antzeko proiektuak geldiarazita egotea zeharo ezduina dela, eskubide horiek guztiak gizarte errealtatearen isla garbia direlako.

Badakigu oraindik orain bide luzea gelditzen dela. Dena den, GEHITU osatzen dugun gizon-emakumeek geure esker ona erakutsi nahi diegu nafar parlamentukideei, gay eta lesbianen kausen alde egindako lanagatik eta emandako laguntzagatik, ziur baikaude gure esker ona orobat ere helduko zaiela hurbileko Foru Erkidegoko herritar guzti-guztiei; halaber, ziur gaude aurrerapauso handia egin dugula gizabanakoen eta taldeen askatasunak aitortu eta defendatzeari begira.

David Montero, GEHITUko koordinatzailea

Oharra: Saria emateko ekitaldia larunbat honetan, azaroak 11, egingo da, Donostian antolatutako Homosexualitateari buruzko III. Jardunaldiei amaiera emango dien Kontzertuaren haritik, "Familia berriak: familia homosexuala" izenburu generikoaren pean GEHITUK bere hirugarren urteurrena ospatu baitu. Kontzertua 23:00etan hasiko da eta Saria ordubete beranduago ematea aurreikusita dago (igandeko 00:00ak aldean). Zuen ordezkariaren bat bertan izango dela baieztatzeko, jar zaitetzte harremanetan, mesedez, 943 277 368 edota 667 452 541 telefonoekin, bi kasuetan Davidez galdetuz..